

FAMILIENTZAKO AHOLKU BALIAGARRIAK

5. aholkua. Zer gomendio izango litzateke lagungarria mugikorra/smartphonea behar bezala erabiltzeko?

1. Azter dezagun ohiko lekuetan nola erabiltzen dugun mugikorra (familian, eskolan, lanean...). Aholkatzen dugu sen onaz jokatzea zer lekutan erabili beharko litzatekeen zehazteko edo mugatzeko.
2. Gomendatzen da tresna horiek erabiltzeko arauak zehaztea; besteak beste, non eta noiz erabili zehaztea. Arauak errespetatu daitezkeen nahi badugu, hobe izango da beti familiako kide guztien artean adostea. Telefono mugikorra ez litzateke oztopoa izan beharko gizarterako eta familiaren barne komunikaziorako.
3. Gazteak mugikorra erabateko autonomiaz erabiltzen hasten direnean, erabilera horrek zer-nolako kostua dakarren jakin beharko lukete; izan ere, gastuan arduratsu izateak lagundu egiten du tresna bera ere modu arduratsuan erabiltzen. Egungo egoerak horretarako bidea ematen du, doako aplikazio mordera dugulako.
4. Lagundu zure seme-alabari erabilera desegokiak zer arrisku dakartzan ezagutzen; adibidez, pribatutasuna mantentzeko, edozeini telefono-zenbakia ez emateko, eta abar. Garrantzitsua da pasahitza jartzea, zure mugikorraren edukian inor sar ez dadin.
5. Aztertu geolokalizazioa desaktibatzeko aukera, pertsona guztiek ez baitute zertan jakin adingabe une oro non dagoen. Bluetooth ere desaktibatu, besteak beste birusik sar ez dadin.
6. Mugikorra sare sozialetarako eta WhatsApp-erako bakarrik erabiltzea ez da probetxua ateratzea, tresnak aukera asko ematen dizkigu eta. Ez dezagun ahaztu poltsikoko ordenagailuak direla, erabat.
7. Beharrezkotzat jotzen denean baino ez da erabili behar. Ez dizkigu inposatu behar bizitzaren denborak eta beste pertsonetikiko harremanenak. Eskura dugun beste tresna bat besterik ez da. Beharrezkoa ez bada, itzalita egon beharko luke, batez ere gauean. Zaila bada ere, mugikorraren gaueko erabilera kudeatu beharra dago. Gauean mugikorrak itzaltzea adostu beharko genuke, behar bezala atsedean hartzeko. Pentsatu al duzue mugikorrerako "parkinga" sortzea?
8. Garrantzitsua da adingabeek zer tresna erabiltzen dituzten ezagutzea. Nola erabiltzen duten, zer aplikazio erabiltzen dituzten, zer webgune bisitatzen dituzten edota argazkiak ateratzeko nahiz bideoak grabatzeko joera duten jakitea lagungarri egingo zaigu aholku egokiak emateko. Gainera, garrantzitsua da gailu horiek erostean aholkuak ematea.
9. Gehiegizko erabilerak gizartean bakartuta geratzea ekar dezake. Gure harremanetan, aurrez aurre pertsonekin izan ohi ditugun harremanek izan beharko lukete beti lehentasuna. Gure seme-alabei harreman fisikoak (batez ere berdinen arteko harremanak) baloratzeko tresna sozial nahikoak lortzen lagundu behar diegu.
10. Bultzatu egin behar da deseroso sentiarazten dituzten jokabide eta gertaeren aurrean inoiz isilik ez geratzea.